Joxerra Garzia Garmendia

Malen labirinto madarikatuan

erein

Joxerra Garzia Garmendia

Malen labirinto madarikatuan

Perzebal, 35

1. argitalpena: 2018ko martxoan

Azalaren diseinua eta irudia:
Irati Guarretxena
Maketazioa:
Itxaropena
© Joxerra Garzia Garmendia
© EREIN. Donostia 2018
ISBN: 978-84-9109-210-0
L.G.: SS-291/2018
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300 F 943 218 311
e-mail: erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.
Araba kalea, 45. 20800 Zarautz
T 943 835 008
itxaropena@itxaropena.net

Joxerra Garzia Garmendia

Malen labirinto madarikatuan

erein

Beñatentzat, berarekin bateratsu
eta berarentzat sortu baitzen Malen

"*Mesó, meniamor, menbey*
Meniamor mesé meniamorsé".
"Gizaseme zuhurra ezin daiteke beste
zuhur batekin gorabehera zurrun edo
serioez mintza, haurrengana jo
beharko du horretarako".

Etiti, Betsi-en buruzagi zaharrak,
Blaise Cendrarsen arabera.

AURKIBIDEA

1. Jolas parkeko pottokaren kondaira 11
2. Labirintoaren atarian 25
3. Bi ipotx eta *harritz* bat 31
4. Hitzontza 41
5. Beti kontu bera 45
6. Soldadu bat, bi soldadu… 51
7. Kezko seinaleak 55
8. Labirintoaren sekretua 61
9. Amaia da hasiera 69
10. Non dago labirintoa? 75
11. Pottokaren azken irrintzia 79

1
Jolas parkeko pottokaren kondaira

Bost urte nituela ekarri gintuzten hona, Igeldoko jolas parke honetara. Perla eta Luna ere nirekin ziren (artean izenik gabeak biak, ni neu bezala), aurreraka baino areago alboraka egiten zuen kamioi trakets malapartatu hartan.

Ez ninduten horratik berehalakoan harrapatu! Gu baino zaldi handiago eta itxuraz dotoreagoak erabili arren, majo kostatu zitzaien gu lazoan sartzea. Zaldi handi horiek, izan ere, horixe baino ez dute aipatzeko modukorik: itxura. Gainerakoan, putza: indarrak indar, mendiko malkar eta sastrakan takarraran ibiltzeko gauza ez dira.

Eguna argitzearekin batera iritsiak ziren, eta egun osoan aritu zitzaizkigun tira hortik eta xaxa hemendik. Oraindik halaxe arituko ginen noski,

baldin eta iluntzerako erreka zoko hartara behartu eta inguratu izan ez baninduten.

Hamaika gizon baziren gure bila etorriak. Hango oihu eta garrasiak! Hango harrapatu eta ihes egin beharra! Ikaragarrizko zalaparta sortu genuen. Tiro-hotsak ere entzuten ziren tarteka. Azkenerako, zizpak aurrean eta ur-lasterra atzean, amore eman behar: zer erremedio!

Lepotik estu-estu jarri zidaten soka latz lodia. Perla eta Luna atzetik nituela, kamioi barrura jaurti ninduten zakarki, eta atetzar herdoildua danbateko durunditsu batez itxi zuten.

Kamioi baldarrak batera eta bestera egozten gintuela egin genuen bide guztia. Halako batean, kamioia geratu eta mendixka honetan deskargatu gintuzten. Gero jakin nuen "Igeldo" esaten ziotela paraje honi, baina artean non ginen arrastorik ere ez neukan.

Gau iluna zen. Izarrik ez zen zeruan ageri. Kamioitik irteterakoan, hotzak eragindakoa ez zen hotzikara batek zeharkatu ninduen alderik alde, buztanetik hortzetaraino.

Estalpean igaro genuen gaua, itxitura dotore batean. Lastoa bazen han, nahi zuenak ase eta bete egin arte jateko. Ez nuen nik mokadu handirik jan, biharamunean zer gertatuko ote zen ez ote zen, kezka eta dardar batean eman bainuen gaua, lo zipitzik egin gabe.

Esna gaudela ere egin ohi dugu amets, ordea, eta ez ziren nire orduko amets haiek gozoak izan. Biharamun goizetik gertatu behar zuena, halere, amesgaiztorik gaiztoena baino gaiztoago izango zen. Urteak pasatu diren arren, oraindik ere ahotsak dar-dar egiten dit egun haietan bizi izan genuena kontatzean.

Gizon txiki xelebre bat inguratu zitzaigun, eskuetan zigor bat zuela. Nik ez nuen deusik ere ulertzen gizontxo hark marmarikatzen zituen hitzetatik, artean giza hizkuntza sekula entzun gabea bainintzen. Azkar asko antzeman nion, halere, zer nolako asmoak zituen hark gurekiko.

Hasteko, izen bat ezarri zidan, bera baino ere xelebreagoa, eta horixe ikasi nuen nik lehen giza hitza:

–Tira, *Rayo!* –esaten zidan.

Edota:

–*Rayo,* hona!

–Geldi hor, *Rayo!*

Rayo hori zer arraio ote zen igarri gabe pare bat egun egingo banituen ere, aurki konturatu nintzen hura ni nintzela, nire izena horixe izango zela, alegia.

Beharko konturatu, zigorkadaz larrutuko ez baninduen!

Mantso eta poliki ibil nendin: besterik ez zuen gizon ergel hark nigandik nahi. Eta hori gutxi balitz bezala, ez zait ba tipoa hasi, nire bizkar gainera igo eta bertan paseatzeko asmotan?

"Besterik ez genuen behar!", egiten nuen nik amorrazioaren amorrazioaz neure baitan. Eta nire gainera igotzen saiatzen hasten zen orduko ekiten nion jauzika eta ostikoka, infernuetako deabru guztiak xaxatzen ari balitzaizkit bezala.

Uhal, zigor eta beste zera batzuez baliatzen bazen ere, ez zen horratik lurraren gogorra probatu gabe libratu. Ederra nengoen ni, astakilo hura mantso-mantso paseatzen ibiltzeko!

Egunak dituen ordu denetan eta gauak dituen minutu guztietan, beti gauza bera zebilki-

dan buruan: mendiko libertate preziatua. Haiek egunak, haiek ibilerak! Gutxi jango genuen: belar izpiren bat edo beste hemen, egun batzuetan jan besterik ez genuen egiten, baina eguna ezer jan gabe pasatzen ere bagenekien, dela elurrak larre guztiak estaltzen zituela, dela jolasean hasita gosea ahanzten zitzaigulako. Batera zein bestera, gustura beti gu.

Eguzkia guztiz argitu baino lehentxeago hasiko ginen trostan. Eta ilundu artean batere geratu ez, okerrik ez bazen behintzat. Makina bat korrikaldi zoro eginak gaude, bai, paraje ezinago harrigarrietan. Zenbat jolas eta txantxetako borroka gure artean! Hango gure irrintzi-festa eta zalaparta zoroa! Tarteka zerbait jateko modurik izanez gero, pozik ibiltzen ginen gu. Eta bestela ere bai. Orduko hura izango da zoriona, zoriona ezer izatekotan.

Eta gero, era horretara eguna igarota, ilunbistarekin batera erretira. Zer esango dut nik gure babesleku hari buruz? Ez da mundu osoko mendietan hangoa bezalako belar gozo bigunik inon izango. Ura ere aldean genuen, eta haizerik ez zen

han bihurrienik ere sartzen. Zer gehiago eska liteke zoriontsu izateko?

Paradisu hartara biltzen ginen, beraz, tropel osoa, egunaren ilunak eta begietako nekeak harako grina pizten zigunean.

Eta, gazteenok lau hankak tolestu eta etzaten ginenean, han hasten ziren zaharragoak kontukontari, orbelak zapaltzean ohi duen baino harrabots zaratatsuagorik gabe, xuxurla zuhurrean.

Papo-muturrak noizbehinka belarraren kontra igurtzi, eta belarri biak Egiptoko piramideak baino tenteago genituela egongo ginen gazte denok, zaharren solas-jolasari adi.

Zer istorio miresgarri ez ote dugun guk han entzunik! Zaharrak, berriz, kontatzeko amorratzen, txanda zain egon ohi ziren irrikatan. Hori baita naturaren legea: "Zaharraren indarra, mingaineko sugarra", pottoken arteko errefraurik zuhurrenetariko batek dioen bezala.

Ezin konta ahala istorio eta kondaira zekiten gure zaharrek. Gero, jakina, bakoitzak izango zuen bere istorio kuttuna, nolabait bere nortasun agiria ere bazen kondaira. Zenbat eta kondaira politagoa izan, orduan eta estimazio handiagoa izan-

go zuen noski tropelean. Istorio horietako asko eta asko dut oraindik ere gogoan, eta itsasoko ura lehortu arte jardun nezake kontari, bakar bat ere birritan esan beharrik gabe.

Bazen ordea bat, beste guztiak baino kuttunago nuen kondaira bat. Taldeko pottokarik zaharrenak bakarrik zeukan hura kontatzeko baimena. Libertatea galdu ondorengo aspaldiko garai hartan, behin eta berriz errapasatzen nuen kondaira hura neure baitan, bera bainuen kontsolamendu bakarra.

Pottoka arrazaren sorrera kontatzen zen istorio hartan. Paleolitiko deitzen dioten antzinaantzinako garai urrutiko haietan gertatu omen zen hori.

Kobazuloetan bizi zen orduko gizakia. Lurreko buztin ezberdinak baliatzen ikasi orduko hasi omen zen margotzen, eta aurki bete zituen marrazkiz kobazuloetako hormak. Santimamiñen bada koba horietako bat, eta hantxe sortuak gara gu, pottokok.

Lehen tentaldi baldresen ondoren taxuz margotzen ikasi zuenean, irudi xarmantak egin zituen Santimamiñeko gizakiak. Behinola, ordu arteko

guztiak baino askozaz ere txukunago eta dotoreagoko irudi bat marraztu zuen gizakietako batek. Eta han bizi ziren denak begira-begira geratu zitzaizkion, begirik kendu ezinik, irudi ezin ederrago hari.

Gisa horretan lilurak jota zeudela, hormatik jauzi eta besterik gabe alde egin omen zuen irudi hark, begira zeudenak lur eta zur utziz.

Horrela sortu zen, bada, lehen pottoka, geroztik izan garen eta izango diren pottoka guztien aita eta ama, gu guztion arbaso lehen eta agurgarri hura. Haren atzetik gero, kobazuloetako hormetan margotutako pottoka guztiek ere gauza bera egin zuten, bana-banaka: hormatik jauzi egin eta mundu zabalera ospa.

Ikusi zituen gizakiak, eta gustuko gertatu zitzaizkion.

Ondotxo dakit nik zer nolako grina duen gizaki jendeak, gauza denei izen bat ezartzeko. Niri ezarri zidaten, eta hormako iruditik sortutako haiei ere bai, noski. Saltokako ibilera zutela erreparatu, eta "pottoka" izena eman zien gizakiak. Geroztik hala bizi izan gara munduan, beste izenen beharrik gabe. Hona ekarri gintuzten arte behintzat.

Istorio hori behin eta berriz neure kolkorako errepikatuz kontsolatzen nintzen, bada, Igeldora

etorri berritan, gure nagusi petralari ostikoka eta jauzika erasotzen nion bitartean, eta baita lorik gabeko gau jasangaitzetan ere.

Tantaz tanta urak harria zulatzen duen bezala, ordea, kemena agortu zitzaidan azkenerako. Luna eta Perla gaztetxoen erreguei jaramon eginez, amore eman nuen azkenean neuk ere. Burua makurtu eta umildu egin nintzen, beraz, agindutakoa betetzeko prest nengoela adieraziz.

Bizimodu berri baten hasiera izan zen hura niretzat. Gogoz kontra eta etsi-etsian garraiatzen nituen haurrak, batetik bestera eta bestetik batera. Horixe baitzen (eta oraindik ere horixe baita) hemengo nire zeregina: haurrak garraiatzea. Ilun eta triste ibili nintzen oso, lehen bolada hartan.

Baina astea joan astea etorri, deliberatu nuen hobe nuela egoera berrira egokitu, bizi guztia erretxindurik pasatzea baino. Eta esango nuke moldatu ere moldatu nintzela, hogei urteotan pozaldi ederrik ere bizi izan baitut Igeldo honetan. Batez ere nire hezitzaile petral hura oiloak ferratzera bidali zuten egunetik.

Jolas parkean batera eta bestera gainean garraiatzen nituen haurrekin izan nituen lehen ha-

rreman pozgarriak. Orduan ikasi nuen giza jendearen artean ere aldeak daudela, denak ez direla nik uste nuen bezain kirten, zital eta gaizto.

Haurren aitzakian etorri ohi diren helduei buruzko nire iritzia ere esango nuke, baina ez dut inor mindu nahi, eta gainera baliteke horien artean ere jatorren bat edo beste egotea. Litekeena da hori ere.

Esan gabe doa: Perla eta Luna neure ume bailiran maite ditut. Pozik bizi dira horiek, gazteagoak izaki, ez baitute askatasun garaietako oroitzapen sendorik. Gure jatorriaren kondaira kontatzen nienean ere, irri inozo banaz entzun eta begiratzen zidaten, "Bai ipuin pollita!" esanez bezala. Hasieran haserretu egiten nintzen horrekin, kondaira ipuintzat hartzen zutelako. Baina horretan ere bigundu behar izan dut. Mendiko hartaz oroitzeko arrazoirik ez dute gazteok. Hemengo bizimodu hau baino ez dute ezagutu, eta honekintxe zoriontsu bizi izateko aski baldin badute, ez naiz ni hasiko inoiz aseko ez dituzten ilusio eta nahiak haiengan ereiten. Segi dezatela, nire partez, zoriontsu izaten!

Ez dezadan negar gehiegi egin: une onik izan dut hemen ere, noski. Eta adiskideak, ez gutxi.

Hemengo adiskideak errepasatzen hasita, nola utzi aipatu gabe Amelio zena?

Hura zen hartz sendo, zindo eta azkarra, hura, munduan horrelakorik izan bada! Hamar urte badira betirako lozorroak harrapatu zuenetik, baina Amelio zaharra ez dago gure bihotzetik apartean.

Koli eta Liko tximinoena, berriz, beste kontu bat da. Tximino kaskarin ipurterre haien ondoan, nola serio eta triste agertu? Bihurri halakoak, harriak ere barrez jarriko zituzten haiek, eta ez da harritzekoa jolas parkera hurbiltzen ziren bisitarien kuttunak izatea.

Ez dakit zer gertatuko zen Koli eta Likorekin. Amelio gaixoa hil eta pixka batera eraman zituzten, eta geroztik ez zaigu haien berri inondik ere etorri.

Lagun galduen samina lagun berriez bakarrik eztitu liteke, eta horretan nahikoa suerte ona izan nuen, inguruko txori guztiak lagun izan baititut beti.

Txoriei esker dakit dakidan munduko berri apurra. Eta niretzat garrantzitsuago dena, txoriei esker dakit istorio pollit asko bat, mendiko pottokarik zaharren eta zuhurrenen kondairen zorrik ez duena.

Txoriei esker, edo hobeto esanda, txilinporta txiki bati esker, txori guztiak ez baitira berdinak. Jakina, hasieran denak berdinak iruditzen zaizkizu: «Oiloa eta oilanda, kaletarrarentzat purrapurra», gizakiei ikasi diedan esaerarik zuhurrenak dioen bezala. Halaxe niri ere: denak berdin iruditzen zitzaizkidan hasiera batean. Baina beraiekin harremanetan hasi nintzenetik bertatik konturatu nintzen ez dagoela txori guztiak izen bakar baten kaiolan sartzerik.

Txilinporta txiki bati zor diot, beraz, mendiko gure aterpe gozoko tertulietan kontatzeko modukoa iruditzen zaidan kondaira xarmant hau. Atzo balitz bezala gogoratzen naiz, nola agertu zitzaidan Txilin –halaxe esaten bainion nik–, bere lepo eta moko motzak aurretik zituela.

Egonean nengoen ni, atseden pitin bat hartzen. Halako batean, hor ikusten dut txori txiki pottolo bat, hurbileko putzu batean urari mokoka. Bota diot ongietorria irrintzi gozo batez, baina deabruak hartuta bezala airatu da, zalaparta bizi-bizian. Hegaldi zoro motz bat egin, eta berriro putzura. Egarriak amorratzen egon, nonbait.

Inguratu nintzaion, bada, poliki-poliki, eta oraingoan, zeharka begiratzen bazidan ere, ez zuen ihes egiteko zirkinik egin. Ezeren kalterik egingo ez niola egiaztatu zuenean, berriz, lasai asko aritu zen batetik bestera jauzika, putzuaren ertz guztiak neurtu nahirik bezala.

Ahal izan nuen moduan, irrintzi-keinuka, nirekin etortzeko esan nion. Baita etorri ere azkar asko. Jauzi arin bat egin, eta belarrien artean pausatu zitzaidan emeki.

Iluntzen hasia zen, eta, han behean, piztutako kandela txikiz josiriko tarta handi bat zirudien Donostiak. Estalpera sartu ginen, baina lotarako asmo handirik gabe.

Nola lo egin, Txilin txikiak kondaira zoragarri hura kontatzeari ekin bazion *bi-bi* eta *uit-uit*-ez osaturiko bere hizkera kantari hartan?